

**DANIELA ALBIZU,  
URRUÑAKO IDAZLE SUTSUA**

Urruñara bizitzera etorri ginenean, Daniela ezagutzeko aukera izan nuen, euskararen eta euskal kulturaren inguruko ekitaldi guztietan topatzen bainuen. Emakume jator, prestu, kementsu, ausart, hurbil eta zinez interesgarria iruditu zitzaidan hasiera-hasieratik. Tupustean, bere narrazioak, bere olerkiak, Urruñaren historiari buruzko pasarteak... topatu nituen Iparraldeko aldizkari eta liburuetan. Altxor ederra iruditu zitzaidan. Naturaltasunez idazten zuen, baturanzko hizkera erabiliz, baina baita Lapurdiko lexiko zabala eta erramolde ederrak ere.

Zorigaitzez, bizitzan jasan dituen ustekabe handiek izugarri kolpatu dute, eta 2010ean, osasun arazoak zituela ikusirik, urriaren 28an haren etxera hurbildu nintzaion, bere biografia eta bere liburuak berreskuratu nahian. Bero eta besoak zabalik hartu ninduen, beti bezala, eta nire eskuetan utzi zituen bere idazlan guztiak. Maiatz argitaletxeko Luzien Etxezaharretarekin mintzatu nintzen eta berak bultzatu ninduen liburu hori buruztera eta plazaratzera. Eta honela jaio zen Daniela Albizuren literatur lanak biltzen dituen *Iturri-aldeko nire leibotik* liburua.

Liburuaren aurkezpena 2011ko apirilaren 16an, larunbatarekin, egin zen Urruñako Posta etxean. Hitzordua 11etan zen herriko plazatik gertu den aipaturiko udal egoitzan, eta ordurako

goiko solairuan dagoen areto ederra jendez mukuru zen, urruñarrek eta urruñar ez zirenek leporaino betetzen baitzuten. Maiatz-eko Luzien Etxezaharretak sarrera egin ondoren, Urruñako auzapez axuanta den Germaine Hacala euskaltzale ezagunak hartu zuen hitza, bere familiak Danielaren aitarekin zuen zorra oroituz, Leon Albizu hargina izan baitzen etxea berritu ziena. Gero, Danielaren ipuinez eta artikuluez mintzatu zen, euskaldunok Danielaren aldetik jaso dugun altxorra denon gogora ekarriz. Germainek bukatu orduko, niri egokitu zitzaidan hitza, eta liburuaren nondik norakoak azaldu ondoren, bukaera eman zitzaion aurkezpenari eta hasiera urruñarrek eta gainerako adiskideek Danielari eskaini nahi zioten omenaldi beroari.

Urruñako dantzari trebea den Celinne de Peruk aureskua dantzatu zuen Danielaren aintzinean, eta gero, Ixabel Etxeberria hautetsi abertzaleak Danielaren lana, herriko etxean, herri-gintzan, preso eta errefuxiatuen aldeko sostenguan, behartsuen aldeko komiteetan, euskal kultura sustatzen... goraipatu zituen bertan zeudenen arteko txaloen artean. Omenaldia bukatu zen Euskal Herriko edozein herritan bukatzen den ohiko moduan, mahai on baten inguruan, Arotzenia ostatuko jangela ederrean, hain zuzen ere.

-----ooo0ooo-----

Daniela Albizu Berasategi Urruñan sortu zen 1936ko maiatzaren 23an. Aita Leon Albizu Perez de San Roman arabarra zuen, Ilarduia herrikoa eta ama Nizeta Berasategi Mintegi gipuzkoarra, Urtsuaran herrixkako. Rif-eko Gerlatik ihes egiten Lapurdira etorri ziren. Aita ideologiaz komunista zen eta ez zekien euskaraz. Geroxeago, Urruñan bizi zela, ikasi bazuen ere. Ama, berriz, biziki giristinoa zen, eta euskaraz bakarrik hitz egiten zuen. Jadanik ezkondua zirela, eta Espainiak Marokoko Rif aldean zuen gerlara ez joateko, desertatu, gurdia etxeko ondasunez eta hargin ofizioko tresnez bete, eta Iparraldeko bi-

deari ekin zioten. Gurdian, gainerako gauzen artean, bizpahiru txerri zekartzaten eta muga pasatzerakoan poliziek haien harabotsak entzun ez zituzten, rona eman zieten eta horditurik, erdi lotan, ekarri zituzten Urruñaraino.

Leon biziki hargin ona zen, eta eskualdeko baserrietan konponketak eta eraikinak egiten aritu zen, gehienbat. Ez zioten dirurik ematen, baserrietako mozkinak baizik, eta horrela bizi izan ziren lehen urte zail haietan. Bere eskuz altxatu zuen, Urruñarako bidean, ezker aldean, orduz geroztik albizutarren etxe eta habia izan den Iturrialde izeneko etxe handi ederra. Bitxikeria gisa, aipa dezagun berak egin zuela Kalbario mendiko gailurrean dagoen gurutze handia. Bitxia da, Leonek, komunista izaki, Urruñan den gurutzerik handiena egin baitzuen.

Albizutarrek lau seme-alaba munduratu zituzten: Beñat, Pirot (+), Mariana eta Daniela, eta handitu ahala, lauek Urruñako plaza gibleko eskolan ikasi zuten. Danielak maistra izateko ikasketak Baionan burutu zituen eta bukatu zituelarik, Donibane Garazi ondoko herrixka ttipi batera igorri zuten, bertako eskolako maistra izan zedin.

Garai hartan, frantses kolonizazioak gogor jotzen zuen Ipar Euskal Herrian, eta eskoletan euskararen kontrako jarrera sutsua erakusten zuten. Eraztuna eta horrelako *jokoak* erabiltzen zituzten euskararen prestigioa ahultzeko eta ikasleen ezpaintedatik desagerrarazteko. Danielak bazuen euskal sentimendu handia bere bihotzean eta ez zen nehoiz horrelako joko zikinetan aritu, haatik, euskararen aldeko jarrera garbia erakutsi zuen beti. Eguerdiro, eskolako ordutegitik kanpo eta sosarik kobratu gabe, bistan da, euskarazko mintzaldiak lantzen zituen zenbait ikaslerekin. Garazi aldeko eskola hartan izan zen bitartean, vespa bat erabili zuen harat-honatekoetarako. Behin, ikasle bat Baionara eraman zuen vespa hartan azterketa bat egin zezan.



Geroxeago, ikasketa gehiago burutu zuen, eta horrela maistra izatetik irakasle izatera igaro zen. Titulazio berria eskuratu ondoren, Donibane Lohizuneko Ravel Kolegioan aritu zen urte luzez frantsesa eta espainola erakusten. Baina bere egiazko nahia euskara erakustea zenez gero, zenbait urtetan Hendaia-ko Irandatz Kolegioan aritu zen gure mintzaira ederra bertako gaztetxoei erakusten.

Urruñan, Hazia euskal kultura elkartearen sortzen eta bultzatzen lehenetakoa izan zen eta gauza bera Herritarrak mugimendu abertzalearekin. Aurkeztu ziren lehen hauteskundeetan kontseilari edo zinegotzi bat lortu zuten eta horretan aritu zen bederatzi urtez gure Daniela, Poulou auzapez eskuindarrari adore handiaz aurre egiten. Urte gogorrek Danielak jasan behar izan zituenak.

Gainera, ordurako, Franc Pilotterekin ezkondua eta bi seme-alaben ama zen: Domena eta Didier. 1990. urtean, alaba, Okzitaniako Tolosako unibertsitatean, ikasketak egiten ari zela, zorigaiztoko istripu batek bizia ostu zion hogeitun urte zituelarik. Gertakizun latz honek arrasto sakonak utzi zituen Danielaren baitan.

Baina mugagabeko saminari aurre eginez, Danielak, gaztetan hartutako konpromisoari eutsi, eta hurrengo bi hamarkadetan Iparraldean izandako mugimendu politiko abertzalean, euskal kulturaren, euskararen irakaskuntzan, ... buru-belarri sar-

turik jarraitu zuen. Militantzia politikoan ibili zen, bakearen aldeko xerkatzean Elkarri mugimenduari atxikirik, euskal preso-en aldeko jarduera eta ekintzetan, euskararen irakaskuntza eta pedagogia bultzatzeko sorturiko IKAS elkartean ---non zenbait urtez lehendakaria izan zen--, Jakintza euskal etnografia taldean, euskal aldizkarietan kolaborazioak eta literatur-lanak plazaratzen, itzulpengintzan...

1979an *Hiru ubainak* izeneko ipuin eder eta gogoangarria plazaratu zuen Elkar argitaletxearen bitartez, eta 2003an, Maiatz-en bidez, *Lau sasoi, lau ipui* liburu xarmangarria. Horretaz gain, ipuinak, sagoetak, olerkiak,... plazaratu zituen *Maiatz* eta *Hatsaren Poesia* izeneko aldizkarietan. Lehen aipatu bezala, 2011ko apirilaren 16an eta Maiatz argitaletxearen bidez, bere literatur idazlan guztiak biltzen dituen *Iturri-aldeko nire leihotik* izeneko liburu ederra plazaratu zuen.

Idazteko orduan biziki euskara ederra eta herrikoia erabili du beti. Hasiera-hasieratik baturanzko bidea jorratu du, hori dela eta, euskal aditza batuaren aldeko apustua egin du. Lexikoa eta erramoldeak, berriz, lapurtera bizi-bizitik hartu izan ditu. Altxor handia da bere testuetan Danielak utzi diguna. Denok badaukagu zer ikasi testu horietan. Elkar argitaletxerako ere, euskal kultura eta etnografiako zenbait liburu itzuli ditu espainoletik frantsesera. Aipa ditzagun hemen Koldo San Sebastianen eta Antxon Agirre Sorondoren liburuekin egindako itzulpen eder eta zuzenak.

Irakaskuntzan emandako azken urteak Donibane Lohizuneko Ravel Kolegioan egin zituen. Hor lanean ari zela, frantses poliziek atxilotu zuten eta Fleury Mérogis presonde-



gira eraman. Bertan izan zen bi hilabetez, etxean Hegoaldeko iheslari bat aterpetzeagatik. Kartzelatik atera eta bi urteren buruan erretretan sartu zen. Baina erretretan bazen ere, bere militantzia eta konpromisoarekin jarraitu zuen. 2009. urtean, Alkartasuna Fundazioak Euskal Herriaren alde egindako lan bikainen sari, diploma eman zion.

Gaur egun, 74 urterekin, aitak egin Iturri-alde etxean da, Didier semearekin eta Kuki zakurrarekin, bizitzan orain arte nehoiz ezagutu ez duen ongi merezitako lasaitasunaz gozatzeko. Milesker Daniela, gure hizkuntzaren eta euskal aberriaren alde egin duzun lan handiagatik.

Biba zu!

Buka dezagun Danielak 2008ko Hatsaren Poesia aldizkarian, *Abulezia* titulupean plazaratu zuen olerki gogoangarria azken lerro hauetara ekarriz. Iragarpen ezin hobea delakoan nago.

Xoriak ez du kantatzen,  
olerkariak ez du bertsurik asmatzen,  
egunero laino xuriek  
zeru urdina dute estaltzen.

Iduzkia, ilargia eta izarrak  
ez ditugu ikusten,  
ekialdeko haize minak  
basaki dauku agurtzen.

Banoa hartzaren harpera,  
horren ondoan lo egitera.

*Joseba Aurkenerena*  
Urruñan, 2011ko apirilaren 22an.